



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2004ko martxoaren 15a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako osasun eskualdeei buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea aldatzen duena. Tramitera ez onartua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, Nafarroako Gobernuak aireko komunikazioen alorrean darabilen politika orokorrari eta Noaingo aireportuaren egoerari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egina (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Cascanteko osasun barrutia pediatriako zerbitzu egoki batekin sendotu dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adimen osasunari buruzko foru lege proiektu integral bat presta dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da suhiltzaileen lanbide gaixotasunen taula bat presta dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Aralar, Eusko Alkartasuna eta Askotariko parlamentu-taldeen aurkeztu dute (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 105/2002 Foru Agindua alda dezan. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, foru erakundea den aldetik, konstituziokontra-kotasuneko errekurtsioa aurkez dezan Gizarte Segurtasunari buruzko Lege Orokorreko testu bategineko 2. artikulua aldatzen duen eta 38. artikuluari 4. idatz-zatia gehitzen dion abenduaren 10eko 52/2003 Legeko 1. artikuluko lehen eta bigarren idatz-zatien aurka. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Adierazpen politikoa, 2004ko Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, ikastetxeetako obra proiektuen finantzazioari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egin (12. or.).
- Galdera, elurtea izanez gero zerbidoei jaten emateko aurreikusitako neurriei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernu departamentuek dituzten datu pertsonalen zaintzaren segurtasunari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (13. or.).
- Galdera, Kiotoko konpromisoa betetzeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egin (14. or.).
- Galdera, oinarritzko osasun barrutietako pediatrei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (14. or.).
- Galdera, Cascanteko oinarritzko osasun barrutiko eroldan dauden pediatriako adineko haurren kopuruari buruzko datuak direla eta, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (15. or.).
- Galdera, Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloa arautzeko dekretua prestatzeko lanei buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (16. or.).
- Galdera, Positrón sistemaren hornikuntza kontratuaren gaineko jarraipenari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egin (17. or.).
- Galdera, Positrón sistemaren hornikuntza kontratua betetzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egin (18. or.).
- Galdera, Mendillorriko bigarren hezkuntzako institutua eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egin (18. or.).
- Galdera, Lagun Etxea zentroari buruzkoa, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Íñigo andreak egin (19. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako osasun eskualdeei buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea aldatzen duena.

TRAMITERA EZ ONARTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako osasun eskualdeei buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu zuen.

Nafarroako Gobernuak 2004ko martxoaren 1ean hartutako erabaki batean, aipatu foru lege

proposamena tramitatzearekin ados ez dagoela adierazten du, aurrekontuko kredituen gehikuntza suposatzen duelako. Erregelamenduko 145.3. artikularekin bat, ERABAKI DA:

1. Nafarroako osasun eskualdeei buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena ez tramitatzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak aireko komunikazioen alorrean darabilen politika orokorrari eta Noingo aireportuaren egoerari buruzkoa.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: "Jabeldura, Nafarroako Gobernuak aireko komunikazioen alorrean darabilen politika orokorrari eta Noingo aireportuaren egoerari buruzkoa".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, aipatu jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduak 179. artikuluan eta ondokoetan xedatuaren babesean, hurrengo Osoko Bilkuran honako jabeldura hau tramita dadila eskatu du. Nafarroako Gobernuak aireko komunikazioen arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa da jabeldura.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak egoki deritzo une honetan Nafarroako Parlamentuan jabeldura bidezko eztabaida bati ekiteari, Nafarroako Gobernuak aireko komunikazioen arloan darabilen politika orokorrari

buruz. Eztabaida horretan kontuan hartu beharko lirateke, gutxienez ere, honako gai hauek:

- Nafarroako Gobernuak ondoko gaiei buruz nolako balorazioa egiten duen: Noingo aireportuaren egungo egoera, haren segurtasun baldintzak eta Iberiak Nafarroako Foru Komunitatean ematen dituen zerbitzuak.

- Nafarroako Gobernuaren ustez, bat al datoz zerbitzu horiek Nafarroako gizartearen aire bidezko komunikazioen beharrezanekin?

- Nola dago Iberiarekiko, honezkero Iberia Taldean sarturik dagoen garai bateko Aviadorekiko, eta haren osagarri kontratatutako enpresa Air Nostrumekiko ituna? Nolako balorazioa du gobernuak itun hari buruz?

Arrazoi horiek guztiak direla-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuari zuzenduriko honako jabeldura hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak aireko komunikazioen arloan darabilen politika orokorrari buruzkoa.

Zehazki, xehetasun gehiagorekin jakin nahi dugu zein urrats eman dituen Nafarroako Gobernuak gobernu zentralarekin eta haren menpeko erakundeekin aire bidezko garraio zerbitzuak eta Noingo aireportuaren segurtasuna hobetzeko.

Iruñean, 2004ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Cascanteko osasun barrutia pediatriako zerbitzu egoki batekin sendotu dezan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Cascanteko osasun barrutia pediatriako zerbitzu egoki batekin sendotu dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 193. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Cascanteko oinarrizko eskualdeko pediatria zerbitzua erabiltzen duten amen ordezkari

batzuek, Murchanteko alkatea lagun zutela, otsailaren 27ko lan saioan, Osasun Batzordeari jakinarazi zioten duela zortzi urtetik hona zerbitzu horretan pairatzen duten egoera.

1.730 dira Cascanteko oinarrizko eskualdeko haurrak, ukituriko herrietako udalek eginiko ziurtagirien arabera, gehi beste 100 pertsona inguru, eskualde horretan bizilekua duten etorkinak. Osasun Departamentuaren ustez, ordea, Cascanteko oinarrizko eskualdean 1.027 haur daude; datua gaurkotu beharko luke, beraz, udalek beren ziurtagirietan diotenarekin alderatzeko.

Osasun Kontseiluaren 2003ko abenduaren 18ko aktan adierazten den bezala, gainera, programatutako bisitak atzeratzen ari dira, gero eta eskari gehiago dagoelako. Osasun kontseiluko sendagileek onartzen dute bisitetan lehentasun batzuk ezarri behar direla, jaioberriei hamabost egunen buruan egin beharreko bisitei leku egiteko; horrekin, zerbitzua okertu egingen da. Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Gobernua premiatzea Cascanteko oinarrizko eskualdea indar dezan, eskualdeko haurrei behar bezalako laguntza emanen dien pediatria zerbitzua ezarri; ezarritako protokoloaren araberrako bisita programatuen zerbitzua emanen du zerbitzu horrek.

Iruñean, 2004ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adimen osasunari buruzko foru lege proiektu integral bat presta dezan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adimen osasunari buruzko foru lege proiektu integral bat presta dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahaliko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 193. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena:

Joan den otsailaren 27an, Parlamentuko Osasun Batzordeak lan bilera bat egin zuen Foro de Salud Mental elkarteko ordezkariekin. Azpimarratzekoak dira osasunaren arlo honetako adituek eginiko gogoetetako batzuk: "Gaixotasun kardiobaskularrak, minbizia eta istripuak herrialde garrantzuetan hildako gehien sortzen dituzten arrazoiak dira. Hori dela eta, osasun agintariak, logikoa den

bezala, lehentasuna eman diete osasun arazo horiei, jendea bizi daitekeen urteen kopuruan eragin handia dutelako. Adimen gaixotasunek hildako gutxiago eragiten dituzte, eta, hori dela-eta biziurte gutxi galarazten diete pertsonari. Aintzat hartu behar da, baita ere, estigma sozial bat badagoela gai hori dela eta. Pertsonak nola hiltzen diren aztertu baino nola bizi diren aztertuko bagenu, gure ikuspegia bestelakoa litzateke: adimen gaixotasunek gazteengan ere eragina izaten dute, baliaezintasuna ekartzen dute, gizarte bazterkeria eragiten dute, sufrimendu handia sortzen diete gaixoei eta haien familiei".

Foro de Salud Mental erakundearen sarrera horrekin, helburu batzuk proposatzen dira; besteak beste, indar politikoak eta adimen osasunaren arloan eskumena duten gainerako gizarte eragileak sentsibilizatzea, populazio horri behar bezalako laguntza ematera bideratutako konpromiso errealak har ditzaten.

Adimen osasunaren aldeko itun bat proposatzen dute.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak, Foro de Salud Mental erakundeak Osasun Batzordeko lan bilera adierazitakoa berretsiz, eta Anasaps elkarteko ordezkariak Parlamentuko agerraldian eginiko aldarrikapenekin ere bat eginez, Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hileko epean adimen osasunari buruzko foru lege proposamen integral bat igor dezan Parlamentura.

Iruñean, 2004ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da suhiltzaileen lanbide gaixotasunen taula bat presta dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA, IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA, ARALAR, EUSKO ALKARTASUNA ETA ASKOTARIKO PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Aralar, Eusko Alkartasuna eta Askotariko parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu dute: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da suhiltzaileen lanbide gaixotasunen taula bat presta dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Idazki hau izenpetzen duten parlamentu-taldek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Suhiltzaileen Plataforma Bateratuak adierazitako aldarrikapenak aztertu ditugu; hain zuzen ere, lortu nahi dituzten helburuetan islatzen direnak dira:

a) Suhiltzaileen lanbide gaixotasunen taula bat egitea.

b) Suhiltzaileen kidegoetarako erretiro adina aurreratzea.

Helburu horiek arrazoizkoak direla eta antolamendu juridikoan txerta daitezkeela ulertuta, honakoa erabaki dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak gobernu zentrala premiatzen du behar diren arau-neurriak har ditzan lanbide-gaixotasunen taula bat egiteko eta suhiltzaileen kidegoetako erretiro adina aurreratzeko; hori guztia Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategineko 116. eta 161.2 artikuluetan xedatua garatuz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahal den lasterrena bete dezan martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeko hamalagarren xedapen gehigarrian xedatutakoa, eta abian jar dezan Nafarroako Gobernuko ordezkariak eta funtzio publikoaren sindikatuetakordezkariak osaturiko azterketa batzordea, hain zuzen lege hartan jasotakoari jarraituz.

Iruñean, 2004ko martxoaren 4an

Foru parlamentariak: Carlos Cristóbal García, José Miguel Izu Belloso, Txentxo Jiménez Hervas, Helena Santesteban Guelbenzu eta José Luis Etxegarai Andueza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 105/2002 Foru Agindua alda dezan.

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 105/2002 Foru Agindua alda dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, talde horren eleduna den aldetik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran presaz eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Familiari laguntza emateko plan integralak, Nafarroako Gobernuak onetsiak, lana eta familia uztartzea bermatzen duten neurri batzuk biltzen ditu; besteak beste, pizgarriak ematea langileei beren lanaldia gutxitu dezaten legezko zaintza arrazoiengatik, bai eta enpresei ere, langile horiek ordeztuko emakumeak kontratatzeagatik lanaldi partzialean.

Neurri hori, zeinak aurrekontu-laguntza bai baitu Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren "Emakumeak laneratzeko programak" izeneko kontusailean, 105/2002 Foru Aginduan arautu zen.

Foru agindu horren xedea da besteren konturako eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen zerbitzuko langileei laguntza emateko araubide bat ezartzea, sei urte baino gutxiagoko seme-alaben edo adoptatutako haurren legezko zaintza bete dezaten, eta enpresa arruntek haiek ordeztuko langile emakumezkoak kontrata ditzaten.

Honako laguntza hauek jasotzeko, diruz lagundu beharreko jarduketek Nafarroako Foru Komunitateko lantokietakoak behar dute izan.

Egoera horrek baztertu egiten ditu Nafarroan erroldatuta egon eta Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean ohiko bizitokia eduki arren, Nafarroatik kanpo dauden enpresetan lan egiten duten nafarrak. Egoera hori oso ohikoa da beste erkidego batzuetako mugetan dauden udalerrietan.

Egoera bidegabe horri konponbidea emateko, bidezkoa da Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren urriaren 3ko 105/2002 Foru Aginduaren 2. artikulua, Nafarroako edozein udaletan erroldatutako langileentzako laguntzak bil ditzan, lana Foru Komunitatetik kanpoko enpresetan lan egiten badute ere.

Horregatik guztiagatik, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urriaren 3ko 105/2002 Foru Agindua alda dezan, bertan jasotako onuretan sar daitezten, 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, foru erkidegoan erroldatutako langile guztiak, lana Nafarroatik kanpoko enpresetan lan egiten badute ere.

Iruñean, 2004ko martxoaren 4an

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, foru erakunde den aldetik, konstituziokontrakotasuneko errekurtsua aurkez dezan Gizarte Segurtasunari buruzko Lege Orokorreko testu bategineko 2. artikulua aldatzen duen eta 38. artikuluari 4. idatz-zatia gehitzen dion abenduaren 10eko 52/2003 Legeko 1. artikuluko lehen eta bigarren idatz-zatien aurka.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, foru erakunde den aldetik, konstituziokontrakotasuneko errekurtsua aurkez dezan Gizarte Segurtasunari buruzko Lege Orokorreko testu bategineko 2. artikulua aldatzen duen eta 38. artikuluari 4. idatz-zatia gehitzen dion abenduaren 10eko 52/2003 Legeko 1. artikuluko lehen eta bigarren idatz-zatien aurka”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Foru Araubide Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahaliko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2004ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko adierazpen politikoa aurkeztu dio Mahaiari eta Eledunen Batzarrari. Haren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio, foru erakunde den aldetik, konstituziokontrakotasuneko errekurtsua aurkez dezan Gizarte Segurtasunari buruzko Lege Orokorreko Testu Bategineko 2. artikulua aldatzen duen eta 38. artikuluari 4. idatz-zatia gehitzen dion abenduaren 10eko 52/2003 Legeko 1. artikuluko lehen eta bigarren idatz-zatien aurka.

Proposamenaren zioak:

LORAFNaren 24. artikulua dio Nafarroako Gobernuak ondokoa eginen duela: “bereziki zainduko du Nafarroako Foru Eraentzaren osotasuna, eta gertatzen den kontraforu ororen berri eman beharko dio Parlamentuari”.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen ustez, Nafarroako Gobernuak ez du bete LORAFNaren 24. artikulua haren esku utzitako betebeharra, eta Nafarroako Parlamentua izan da, martxoaren 4ko Osoko Bilkuran, aho batez, parlamentu-talde guztietako –UPN, PSN, IUN, Aralar, NDE, EA eta Askotarikoa– ordezkarien babesarekin, honakoa erabaki duena: “Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategineko 2. artikulua aldatu eta 38. artikuluan beste idatz-zati bat, 4.a, eransten duen abenduaren 10eko 52/2003 Legearen 1. artikuluan lehen eta bigarren idatz-zatien aurka konstituziokontrakotasuneko errekurtsua jartzea, “gizarte laguntza” arloan Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenean eragiten duelako”.

Egoera ez-normal horrek –parlamentu-talde guztiek lege horretan kontraforu bat dagoela esatea eta Nafarroako Gobernuak kideek ere iritzi horren arabera ematea botoa, ekimenen bat hartzeko betebeharrak nagusia duen erakundeak horri buruz ezer ere egin ez duen bitartean– ongi aski erakusten du Nafarroako Gobernuak ez dituela bere betebeharrak bete Nafarroako foru eraentzaren defentsan.

Horri, dena den, oraindik ere konponbidea eman dakioke, zeren eta gobernuak konstituziokontrakotasuneko errekurtsua jar baitezake (2004ko martxoaren 11n, ostegunarekin, bukatuko da epea). Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuaren ustez gobernuak konstituziokontrakotasuneko errekurtsua aurkeztea garrantzitsua da, egoerari irtenbidea emateko; izan ere, horrela Nafarroako Foru Komunitateak gizarte laguntzaren arloan dauzkan eskumenak Konstituzio Auzitegian defendatzeak ondorio handiagoak izanen lituzke, bertan Nafarroako bi foru erakundeak inplikaturik egonen liratekeelako, alegia, errekurtsu horiek aurkeztea zilegi duten bi organoak.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, foru erakunde den aldetik, konstituziokontrakotasuneko errekurtsua aurkez dezan Gizarte Segurtasunari buruzko Lege Oro-

korreko testu bategineko 2. artikulua aldatzen duen eta 38. artikuluari 4. idatz-zatia gehitzen dion abenduaren 10eko 52/2003 Legeko 1. artikuluko lehen eta bigarren idatz-zatien aurka.

Iruñean, 2004ko martxoaren 5ean

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

Adierazpen politikoa, 2004ko Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

“Azken urte hauetan emakumeek aurrerapen handiak lortu dituzte bizitzaren arlo guztietan, baina oraindik ere munduko, Europako Batasuneko, Espainiako eta gure foru erkidegoko emakume askok berdintasun eza eta ezegonkortasuna pairatzen dituzte, ondoko arloetan:

1. Giza eskubide oinarritzkoenaren aitortpena: bizitzarako eskubidea.

Emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzak haien eskubideen garapena eragotzi eta duintasunez bizitzeko aukerak gutxitzen dizkie. Ugari dira emakumeen giza eskubideen garrantzia eta gobernuek eskubide horiek sustatu eta babesteko aktiboki lan egiteko beharra aitortzen duten dokumentuak eta arauak.

2. Enpleguan eta bizitza ekonomikoan parte hartzea.

Pertsona guztiak ordainpeko lana edukitzeko eskubidea dutela aitortzea ez da ohiko gauza emakume askorentzat. Emakume gero eta gehiago lortzen ari diren eskubidea da, eta emakumea lan merkatuan sartzea gelditzerik ez duen prozesua den arren, emakumeak eta gizonak ez dira eskubide horretaz berdintasunez baliatzen.

Hartara, langabezia tasak altuagoak dira emakumeen artean, nahiz eta Nafarroaren eta Espainiako beste erkidego batzuen artean alde handiak dauden; lanaren behin-behinekotasuna, soldata txikiagoak, aldi baterako lanak, lanbide promozioa eragozten duen lanaldiaren murrizketa, segregazio bertikal eta horizontala, kohesio ekonomikoa eta soziala zailtzen dituzten inguruabarrak dira. Hori dela eta, lan munduan sarturiko pertsona prestatu eta kualifikatu ugari izateak argi erakutsiko luke enpresen munduan giza baliabideen kudeaketa ezin hobea egiten dela; izan ere, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea, Europako Batasunaren enpleguaren aldeko bal-

dintza ez ezik, gure foru erkidegoaren lehiakortasuna areagotzeko helburu estrategiko bat ere bada.

3. Bizitza zibilean eta erabaki-hartzean parte hartzea.

Gure gizartean formalki gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aitortzen bada ere, parte hartzeko aukeren berdintasun erreala oraindik ere asmo bat baizik ez da. Emakumeek hezkuntza eta ekonomikoki aktiboa den populazioan parte-hartze handiagoa izatea ez dator bat erabakiak hartzen diren lekuetan daukaten esku-hartze mugatuarekin.

Gaur den egunean, nazioarteko erkidegoko ahots askok emakumeek ordezkartza postuetan presentzia handiagoa izatea eskatzen dute oraindik ere. Pekingo 1995eko Konferentziaren ondotik, emakumeek erabakiak hartzerakoan parte hartzea faktore positibotzat jotzen da gizartea demokratizatzeke eta gizarte orekatuago baten aldeko aldatzeko. Emakumeek lidergoan daukaten eginkizuna aitortu nahi dugu, bai eta eragiteko zenbateko gaitasuna daukaten: elementu horiek, izan ere, gure demokraziaren heldutasuna erakusten dute.

4. Gizonen eta emakumeek etxeko arloan eta arlo pribatuan parte hartzea.

Emakume gehienak gaur egun ordainpeko lanetan aritzeak ez du berekin ekarri, aldi berean, gizonezkoek bizitza pribatuko, etxeko lanetako eta pertsonen zainketa arloko eginkizun eta erantzukizunetan sartzea. Horren ondorioz, emakumeek lanaldi bikoitzak eta presentzia bikoitzak beren gain hartu dituzte; horrekin, haien bizi kalitatea okertu da eta espazio eta dedikazio denbora desberdinak dituzten bi esparru horiek bateragarri egiteko zailtasunak areagotu egin dira. Etxeko erantzukizunak etxean bizi eta hartatik onura lortzen dutenen artean banatzeko garaia heldu da; etxeko lanak eta erantzukizunak partekatzea familiako bizitza demokratizatzeak dakarren eskakizu-

na da, justiziak eta gainerako pertsonetikiko errespetuak ere ezartzen dutena.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak, Emakumearen Nazioarteko Egunean,

ERABAKI DU:

1. Berdintasun printzipioa kontuan hartzea eta hura aintzat hartzea jarduketa politiko eta sozial guztietan, emakumeen beharizan bereziak eta egoera ezagutzea bideratuko duen ikuspegi bat erabiliz.

Europako Kontseiluak bultzatzen duen bezala, berdintasun ezari amaiera emateko berariazko ekintzek bat etorri behar dute guztiek hartutako konpromisoarekin, alegia, berdintasunak eskatzen dizkigun beharrezko aldaketa sozialak erraztearekin.

2. Familia, lana eta bizitza pertsonala uztartze-ko politika aktiboak garatzea, nola-eta enpleguaren egiturak eta antolamenduak pertsonen beharizanetara hurbiltzea eta egokitzea sustatuz, pertsonak zaintzeko zerbitzu soziokomunitarioak garatuz eta Nafarroako gizartea sentibilizatuz emakumeek eta gizonek etxeko lanetan daukaten erantzukizuna partekatua izan dadin.

3. Gure antolamendu juridikoaren indar guztiaz emakumeen aurkako etxeko indarkeriaren edo/eta indarkeria sexualaren aurka borrokatzea.

Konpromiso hauek betetzea gure erantzukizuna izanen da, Nafarroako Parlamentua garen aldetik; hartara gogoratuko eta aintzat hartuko dugu, bestalde, emakume guztien lana, 2004ko Emakumearen Nazioarteko Egunean”.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, ikastetxeetako obra proiektuen finantzazioari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI CARLOS CRISTÓBAL GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ikastetxeetako obra proiektuen finantzazioari buruz egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman diezaion; galderaren gaia da Hezkuntza Departamentuak 2004. urteko aurrekontuekin ikastetxeetan obrak egiteko eta ikastetxe berrien eraikuntzarako proiektuak finantzatzea.

Proposamenaren azalpena

Datan adierazitako egunean izandako parlamentu-agerraldian, Hezkuntza kontseilari Campoy jaunak esan zuen 2004an 15.000.000 euro erabiliko direla ikastetxe berriak eraikitzeko eta ikastetxe publikoetan obrak egiteko. Ikusita 2004ko aurrekontuetan gastu horietarako 5.945.221 euro daudela, jakin nahi dugu Ogasun kontseilariak babesa ematen ote dien aurreikuspen horiei, eta kreditu bereziren bat eskatuko ote duen haiek betetzeko edo emendiozko gastua dagoen aurrekontuarekin ordaindu behar ote duen.

Hori dela eta, nahi dugu Ogasun kontseilariak erantzutea, Parlamentuko Osoko Bilkuran, Hezkuntza Departamentuak 2004. urterako ikastetxeetan aurreikusitako obren proiektuak finantzatzeari buruzko ahozko galdera honi:

Babesa ematen al die Ogasun kontseilariak Hezkuntza kontseilariak esandakoari, alegia, 15.000.000 euro gastatuko dituela 2004ko aurrekontuen kargura ikastetxeak eraikitzeko eta ikastetxeetan obrak egiteko? Kreditu berezi bat eskatu behar al du horretarako ezarritako kontusaila osatzeko, ala nahikoa funts ote dago egungo aurrekontuan gastu-konpromiso berri horri aurre egiteko?

Iruñean, 2004ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

Galdera, elurtea izanez gero zerbidoei jaten emateko aurreikusitako neurri buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak elurtea izanez gero zerbidoei jaten emateko aurreikusitako neurri buruz egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zioak:

2004ko martxoaren hasieran, Kintoko dozenaka orein gosez hil ziren, Nafarroako Foru Komunitatean gertatu zen elurtearen ondorioz. Janari faltak oreinengan ez ezik, orkatzengan eta adarabalengan ere eragina izan zuen. Egoera nozitu ez dutenak basurdeak eta azeriak izan dira, hildako zerbidoen hondakinak jan baitituzte.

Galdera:

Zer neurri aurreikusi zituen Ingurumen Departamentuak elurtea izanez gero zerbidoei jaten emateko eta Kintoko oreinak hil zitezten saihesteko?

Iruñean, 2004ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako Gobernuko departamentuek dituzten datu pertsonalen zaintzaren segurtasunari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak Nafarroako Gobernuko departamentuek dituzten datu pertsonalen zaintzaren segurtasunari buruz egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zioak:

2004ko otsailaren bukaera aldean, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak Iruñeko González Tablas kalean duen egoitza nagusiari eraso egin zioten. Handik egun batzuetara, Gizarte Ongizateko kontseilari José Ignacio Palaciosen iragarri zuen behar ziren segurtasun sistemak abiarazi behar zituztela etorkizunean horrelakoak berriz gerta ez daitezen.

Galdera:

Segur egon gaitezke Nafarroako herritarrok Nafarroako Gobernuko departamentuetako datu base eta fitxategietako datu pertsonalak ongi gorderik daudela eta Nafarroako administrazioaz kanpoko inork ezin izanen dituela eskuratu?

Iruñean, 2004ko otsailaren 4an.

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Kiotoko konpromisoa betetzeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Kiotoko konpromisoa betetzeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruz egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Ingu-

rumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Foru Komunitatean bi zentral termiko daude lanean. Ezaguna da sortzen duten kutsadura.

Bestalde, Kiotoko Protokoloak argi zehaztu zituen gobernuak CO₂ igorpenei amaiera ematen joateko beren gain hartu beharreko konpromisoak.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zer egingen du Nafarroako Gobernuak Kiotoko konpromisoak betetzeko?

Zein neurri zehatz ezarriko zaizkie Castejóngo zentral termikoei CO₂ igorpenekin bukatzeko?

Iruñean, 2004ko martxoaren 4an

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

Galdera, oinarrizko osasun barrutietako pediatriei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak oinarrizko osasun barrutietako pediatriei buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Behin eta berriz entzuten ari gara osasun eskualde oinarrizko ia guztietan gurasoek egiten dituzten eskari eta salaketa publikoak oinarrizko osasun laguntzako pediatria zerbitzuak direla eta. Gehienetan esaten dute pediatria gutxi daudela eta zerbitzua gainezka egotearen ondorioz haur asko familiako sendagileek hartzen dituztela, eta beste batzuek kontsulta pribatuetara jotzen dutela. Horrekin, osasun publikoaren irudi negatiboa ematen ari da.

Kontua ez da eztabaidan hasia ea pediatriako adinean dauden haurren kontsultez familiako sendagileak ardua daitezkeen, eta gure helburua ez da haien profesionaltasuna zalantzan jartzea, zeren eta gehienetan ahaleginak egiten baitituzte haurrei ahal den bezain laster laguntza emateko. Bestalde, ez dugu zalantzan jartzen sendagile pediatriak behar direla, eta beren eginkizunak eta profesionaltasuna daukatela.

Hori guztia gorabehera, osasun laguntza publikoaren kalitatea, eta oraingoan, pediatriako lagun-

tzaren kalitatea, defendatzen dugula argi utzita, ondokoak jakin nahi ditugu:

1. Zenbat pediatria daude Nafarroako osasun eskualde oinarrizko bakoitzean?

2. Horietatik:

- Zenbat daude lanaldi osoan eta zenbat lanaldi erdian edo bestelako lan modalitatearen batean?

- Zenbat pediatria joaten dira leku batetik bestera, eta zein herritatik zein herritara? Oinarrizko osasun eskualdeen arabera zehaztea nahi dugu.

- Zein irizpide daude pediatriak herri batzuetara joateko eta beste batzuetara ez joateko?

3. Nafarroan haur bakoitzeko zenbat pediatria dago? Oinarrizko osasun eskualdeen arabera zehaztea nahi dugu.

4. Zer muga dago haur bat pediatriako adinean dagoela esateko, oinarrizko osasun laguntzan eta ospitale laguntzan? Ezberdintasunik izanez gero, zergatik?

5. Aurreikusi al du Osasun Departamentuak aldaketaren bat egitea edo urratsen bat ematea oinarrizko osasun laguntzan pediatriako zerbitzuak hobetzeko?

Iruñean, 2004ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Cascanteko oinarrizko osasun barrutiko erroldan dauden pediatriako adineko haurren kopuruari buruzko datuak direla eta.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Cascanteko oinarrizko osasun barrutiko erroldan dauden pediatriako adineko haurren kopuruari buruzko datuak direla eta foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Joan den otsailaren 26an, Cascanteko osasun eskualde oinarrizkoaren gurasoen ordezkari batzuk Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean egon ziren, pediatria bat lanaldi osoan kontrata dadin eskatzeko.

Eskari hori justifikatzeko datu batzuk eman zituzten.

Honako hau da Cascanteko osasun eskualde oinarrizkoa osatzen duten udaletan erroldaturiko haurren kopurua, udal horietako idazkariek egini-ko ziurtagiriak oinarri hartuta:

Cascante, 586; Murchante, 546; Ablitas, 409; Monteagudo, 148; Barillas, 33; Tulebras, 8. Guztira, 1.730 haur. Horietaz gainera, haur etorkinak ere badaude, 100 inguru.

Dokumentazioa aurkeztu zuten, baita ere, eguneroko Ablitasen eta Murchanten familiako sendagileengana jo behar izaten duten haurren kopuruari buruz; Monteagudoko kasuan familia sendagileak hartzen ditu haur guztiak, pediatarrengana iristeko zailtasunak dituztelako.

Adierazi ziguten, era berean, nola eskualde hartako pediatria guztiz gairatuta dagoen; izan ere, goizeko zortziak eta hamarretarako kupoa beterik edukitzen du, eta pediatarrengana joateko modurik ez duten haur guztiak familiako medikuak hartzen ditu.

Aitzitik, Osasun kontseilariak nik egindako galderari emandako erantzunean, alde batetik departamentuaren datuak (1.027 haur) ez datoz bat udalek emandakoekin (1.730), eta bestetik departamentuak ez du antzeman alde hartan pediatriako zerbitzua gairatuta dagoela.

Gainera, proposatzen duen neurriarekin, alegia, pediatria bat jartzea lanaldi erdian astelehentik ostiralera, astelehentik ostiralera lanaldi

osoan arituko litzatekeen pediatria bat jarri ordez, lana berrantolatu besterik ez du egiten, zeren eta laguntzako ordu kopuru bera eskaintzen baita: 14 ordu.

Guraso horien eskaria da osasun etxeetako pediatriako laguntza hobetzea, kalitatezkoa eta gaur egun behar dena izan dadin, eta haurrek osasun arloan dituzten premiei erantzun diezaien.

Horiek horrela, hona galderak:

1. Zergatik dago alde hori Osasun Departamentuak darabiltzan datuen eta Cascanteko oinarritzko eskualdeko udaletan erroldatutako pediatriako adineko haurren kopuruaren artean? Zer kalkulu egin ditu Osasun Departamentuak pediatriak 1.027 haur dituela esateko?

2. Nola konponduko ditu pediatria zerbitzua gainezka egoteak eragindako arazoak? Zein arrazoi daude pediatria bat astelehenetik ostiralera lanaldi osoan ez kontratatzeke?

3. Osasun eskualde horretako amen ordezkariak aurkeztutako informazioaren ondotik, zein urrats eman behar ditu Osasun Departamentuak haurrek sendagile pediatrien laguntza hartu ahal izan dezaten?

4. Zenbatean behin egin behar dira pediatriako errebisioak eta zenbatean behin egiten dira osasun eskualde horretan?

Iruñean, 2004ko martxoaren 1ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloa arautzeko dekretua prestatzeko lanei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloa arautzeko dekretua prestatzeko lanei buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. - Nafarroako Gobernuko departamentu bat edo departamentu bat baino gehiago ari al da orain Nafarroako Foru Komunitatean Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloa arautuko duen dekretua prestatzen?

2. - Baiezkoan, zein departamentu da horretan ari dena eta zein dira Otik 3 urtera bitarteko zikloari buruzko dekretuaren zirriborro hori garatzeko oinarritzko ildoak?

3. - Metodologia parte-hartzaileraren bat erabiliko al da ukitutako sektoreek iradokizunak aurkeztu ahal izateko behin betiko dekretua argitaratu aurretik?

4. - Nafarroako Foru Komunitatean Otik 3 urtera bitarteko zikloa arautuko duen dekretu hori argitaratzeko datarik ba al dago?

Iruñean, 2004ko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Positrón sistemaren hornikuntza kontratuaren gaineko jarraipenari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Positrón sistemaren hornikuntza kontratuaren gaineko jarraipenari buruz foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Larrialdietako Deiak Koordinatu eta Laguntzeko zentrorako –SOS Nafarroa– kudeatzaile infor-

matiko berri baten hornidura kontratatzeke espedientean ageri diren txosten teknikoetan –"Positron Public Safety Systems Inc" enpresari esleitu zitzaion Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren 1999ko azaroaren 17ko 223/1999 Foru Aginduaz–, honakoa dago jasota: "ezinbestekotzat jotzen da teknikari batek edo gehiagok proiektuaren jarraipena egitea, lanaldi osoa horretara emanda, beharkizunak aztertzeke eta tresnaren garapena eta ezarpena zaintzeke, hain zuzen ere mugarri guztietako jarraipen eta kontrol erabatekoa egin dezaten".

Nafarroako Gobernuak honako galdera honi erantzun diezaion nahi dugu: Zein teknikari aritu da edo dira lanaldi osoan kontratu horren jarraipen erabatekoa egiten? (Ez dugu izenik eskatzen; aski da lanbide kualifikazioa edo lanpostua esatea). Zein epetan aritu da edo dira lan horretan horietako bakoitza?

Iruñean, 2004ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Positrón sistemaren hornikuntza kontratua betetzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Positrón sistemaren hornikuntza kontratua betetzeari buruz foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Martxoaren 3an Barne zuzendari nagusia Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean agertu ondoren, SOS Nafarroako Ekintzen Koordinaziorako Zentroaren funtzionamenduari buruz informazioa emateko, eta orduan emandako azalpenen ondorioz, zentro horren kudeaketa sistema

berriaren kontratuari eta ezarpenari buruz behar adina argitu ez diren alderdi batzuk geratu dira; hori dela eta, Nafarroako Gobernuak ondoko galderei erantzutea nahi dugu:

Uste al du Nafarroako Gobernuak "Positron Public Safety Systems, Inc." enpresak bete dituela, denboraren eta moduaren aldetik, Nafarroako Gobernuko Larrialdietako Deiak Koordinatu eta Laguntzeko zentrorako –SOS Nafarroa– kudeatzaile informatiko berri baten hornidurarako kontratua, zeina prozedura irekiaz eta lehiaketa bidez esleitu baitzitzaion Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren 1999ko azaroaren 17ko 223/1999 Foru Aginduaz?

Aurreko galderari baiezko erantzuna emanaz gero, zergatik atzeratu da produzitzen hasteko unea apirilaren 20ra arte eta sistema hartzeko data hiru hil beranduagora arte?

Galderari ezezkoan erantzun ezker, zergatik 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera ez zaio aplikatzen ari enpresa horri kontratua ez betetzearen ondoriozko zehapena, 2003. urte osoan eguneko 450,76 euroko zehapena ezarri bazitzaion?

Iruñean, 2004ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Mendillorriko bigarren hezkuntzako institutua eraikitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak Mendillorriko bigarren hezkuntzako institutua eraikitzeari buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Mendillorriko bigarren hezkuntzako institutua eraikitzeko dituen aurreikuspenen inguruan hauxe jakin nahi dut:

1) Mendillorri dauden lursailtako zein hautatu da, azkenean, Mendillorriko bigarren hezkuntzako institutua eraikitzeko?

2) Ikusita obren hasiera 2005erako aurreikusi dela, eta obrak 14 hilez luzatuko direla, zein ikasturtetan hasiko da ikastetxe hori zerbitzua ematen?

Iruñean, 2004ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

Galdera, Lagun Etxea zentroari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AURELIA LUMBRERAS ÍÑIGO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Aurelia Lumbreras Íñigo andreak Lagun Etxea zentroari buruz egindako galdera. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2004ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin


GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumbreras Íñigo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Lagun Etxea zentroari buruzko honako galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

– Zenbat diru publiko erabili zen arazo sozialak dauzkaten adingabe eta gazteentzako Lagun Etxea zentroa eraiki eta hornitzeko?

Iruñean, 2004ko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Aurelia Lumbreras Íñigo



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak
 Helbidea
 Telefonoa Hiria
 P. K. Probintzia

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutzako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat 41,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,05 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,23 »	